

BALIO ERANTSIA

Edalontzi hauek, IBIS edalontziak, gizarteari dakarkioten ekarpena erosotasuna (erabilerraztasuna) eta aldi berean lasaitasuna izango da: erosotasuna, une oro bezeroek eskura izango dutelako edan egiteko aukera eta lasaitasuna, produktu hau erosiz ingurumenari ez diotela inongo kalterik egingo dakitelako.



Bezeroari begira, haiei lana erraztea dugu lehentasun gisa eta horretarako, festa zein jaietan txosnetan gure edalontziak salgai egongo dira, edozeinek bere edaria edan eta edalontzia edozein izkinetan ez dezan utzi eta poltsikoetan gorde dezan. Gainera, ohiko supermerkatu gehienetan salgai egongo dira, hala nola, Mercadona, Eroski, TODOTODO... Honela, bezero mota guztien eskura izango dira.

Gure produktuak, gainera, pertsonalizatzeko aukera emango du, hau da, bezeroak nahi izan ezker bere izena edo festa baterako edalontzi zehaztuak egin ditzake, baita esaldi bat jarri ere. Ildo beretik, pertsonalizatutako diseinuaren kolorea zein tamaina librea izango da. Azkenik, prezioa edozein bezeroari egokituta egotea izan dugu helburu, hau da, prezio baxuak jarri nahi izan ditugu eta hala izan da, 2-4€ artean dago edalontziaren prezioa, haren tamainaren arabera, eta diseinua jarri nahi izan ezker 1€ gehituko litzaioke.

